



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Hitzarmena, Basauriko Udala toki-erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiari egin-dako kudeaketa-gomendioa formalizatzeko, enplegu publikoa finkatzeko prozesuetan langileak hautatzeko kudeaketa materiala egiteko.

HAUEK BILTZEN DIRA:

Bilbon, 2022ko azaroaren 29an.

Alde batetik,

— Elixabete Etxanobe Landajuela andrea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko urriaren 25ean hartutako erabakiaren bidez emandako gaikuntzaren arabera, eta funtzio publikoaren arloan duen eskumenaren arabera, uztailaren 19eko 87/2022 Dekretuan eta haren egitura onartzen duen Sailaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Bestetik,

— Asier Irigorri Basaguren jauna, Basauriko Udala Bizkaiko toki-erakundeko alkate-udalburua, haren izenean eta ordezkaritza, tokiko araubidearen legerian ezarritako eskumenak direla bide.

AZALTZEN DUTE:

Lehenengoa: Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak enplegatu publikoen behin-behinekotasuna murriztu nahi du, aldi baterako izendapenen iraupena mugatuz eta eskala handiko egonkortze-prozesuak gauzatzuz.

Horregatik, Bizkaiko toki-erakundeak enplegu publikoa finkatzeko hainbat prozesu egingo dituzte, dagoeneko argitaratuta dauden lan-eskaintza publikoen arabera eta lege horretan jasotako aurreikuspenen babesean.

Bigarrena: Lege horren lehenengo xedapen gehigarriak, toki-erakundeen langileen hautaketa-prozesuen kudeaketa materiala probintzietako aldundien esku uzteko aukera aurreikusten du, baldintza hauetan:

Lehenengo Xedapen Gehigarria. — Tokiko neurriak

1. Udalerriek, biztanleria handikoek izan ezik (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aurreikusitakoak), probintzietako aldundien, kabildeen, uharte-kontseiluen, udalerriaz gaindiko erakundeen edo probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetako organo balio-kideen esku utzi ahal izango dute karrerako funtzionarioen edo lan-kontratudun langile finkoen hautaketaren kudeaketa materiala

Hirugarrena: Azaldutako guztiagatik, bi aldeek beharrezko ikusi dute toki-erakundeak onartutakoan eta bazter utzitakoan zerrenda onartu ondoren prozesuaren kudeaketa materiala Bizkaiko Foru Aldundiari agintzea.

Laugarrena: Jarduera egiteko ardura eduki material eta teknikoagatik ematen da, eta horrek ez du esan nahi toki-erakundearen titulartasuna transferituko denik, ez eta haren eskumenak baliatuko direnik ere. toki-erakundeak emango ditu gomendioaren xede den jarduera material zehatza osatzen duten izaera juridikoko egintza edo ebazpen guztiak.

Bosgarrena: Horregatik guztiagatik, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikularekin bat etorritik, kudeaketa-gomendioari buruzko hitzarmen hau sinatzen dute, eta klausula hauek izango ditu:



KLAUSULAK

Lehenengoa. — Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da 20/2021 Legetik eratorritako langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa materiala egitea, Basauriko Udala toki-erakundea sendotzeko fasean, toki-erakundeak onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda onartu ondoren.

Bigarrena. — Eskumenen titulartasuna

Hitzarmen honi jarraiki egindako gomendioak ez du eskumenaren titulartasuna aldatuko, eta ez du eraginik izango agindutako exekuzio materialaren aurretik hartu beharreko erabaki juridikoen eremuan.

Hirugarrena. — Alderdiek hartzen dituzten konpromisoak eta obligazioak

Toki-erakundearen betebeharrak nagusia izango da erabakitako epean izendatzen den epaimahaiari onarpenen eta bazterketen zerrenda ematea, bai eta egoki diren argitalpenak ahalik eta lasterren egitea ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak hitz ematen du epaimahai bat izendatuko duela, deialdiaren oinarrien arabera hautagai-zerrendak baloratzeke eta sortzen diren errekursoak hautatzeko eta horiei buruzko txostena egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Basauriko Udala toki-erakundeak konpromisoa hartu dute kudeaketa materiala modu eraginkorrean gauzatzeko, baliabide publikoak optimizatuta.

Enkargu horrek enplegu publikoa sendotzeko prozesuek behartzen dituzten jarduera tekniko edo materialei baino ez die eragiten.

Laugarrena. — Ekonomia- eta finantza-arabidea

Hitzarmen honen xedek ez dakar ez obligaziorik, ez konpromisorik, ez konpentsazio ekonomikorik sinatzaileen artean.

Bostgarrena. — Jarraipen batzordea

Bere eginkizunen artean daude hitzarmenaren betetze-maila, betetze-maila eta balizko hobekuntzak ebaluatzea, baita SPAJLren 52.3 artikulutik eratorritako guztiak ere.

Hitzarmen honetan jaso ez diren eta etorkizunean sor daitezkeen gorabeherak konpontzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Basauriko Udala toki-erakundearen bi ordezkari eta Bizkaiko Foru Aldundiko beste bi ordezkari osatua.

Lehendakaria Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkarietako bat izango da.

Batzordea behar beste aldiz bilduko da, alderdietako edozeinek eskatuta.

Berdinketarik gertatuz gero, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Lehendakariari dagokio berdinketak bere botoarekin ebatzea.

Seigarrena. — Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, baldin eta bi alderdiek kudeaketa materialaren gomendioaren beharra ikusten badute.

Aurretik aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute epea gehienez lau urtez luzatzea, 6 hilabeteko aurreabisu-epearekin edo iraungitzearekin.

Zazpigarrena. — Hitzarmena aldatzea

Hitzarmena aldatzeko, alderdiek aho batez adostu beharko dute.

Zortzigarrena. — Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau iraungi egingo da hitzarmenaren xede diren jarduerak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoi izateagatik.



Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Indarraldia luzatzea erabaki gabe igarotzea.
- Sinatzaile guztien aho bateko akordioa
- Sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez bete-tzea.
- Deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala.
- Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik

Ez da alde batetik bestera kalte-ordainik emango ez-betetzeagatik

Bederatzigarrena. – *Datu pertsonalak babestea*

Hitzarmen honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudiak honako hauek dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (aurrerantzean, DPD), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

- Egin beharreko datu pertsonalen tratamenduaren deskribapena: rol eta betebeharr juridikoak.

Rolak: urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundia izango da kudeaketa-gomendioa egikaritzean eskura ditzakeen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna. Bestalde, toki-erankunde sinatzaileek tratamenduaren arduradun-rola izango dute beren langileen datuen tratamenduei dagokienez eta beren eskumenen esparruan.

DBEOren 28. artikulua betez, Datu babesen eranskinean aldean arteko arduradunen eta arduradunen zerrenda arautzen da.

Hamargarrena. – *Araubide juridikoa*

Hitzarmen honek ez dakar aldean arteko kontratu erlaziorik; agerikoa denez, administrazio hitzarmena da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen Aurretzako Tituluko VI. kapituluan xedatu denarekin bat etorritz.

Hitzarmenak bete egiten ditu Aurrekontuei buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuko 44.4. artikuluan ezarritako beharkizunak. Dekretu horren bidez, abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorren testu bategina garatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onetsi zen.

Hitzarmen honetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, hauexek aplikatu beharko dira nahitaez: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2005 Foru Arau Orokorren testu bategina onetsi duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea eta horren errege-lamendua, baita aplikatu beharreko beste edozein xedapen ere.

Horrekin guztiarekin bat datozela egiaztatzeko, hitzarmen hau formalizatu eta izenpetu da goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Bilbon, 2022ko abenduaren 12an. — Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Elixabete Etxanobe Landajuela

**ERANSKINA**
DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28. artikuluan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, aurrerantzean DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat (Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa, aurrerantzean DBEDBLO).

Datu pertsonalen tratamendua eragiten duen

kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena duen hau indarrean hasten denetik:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusia tratamendu-eragilea izango da, eta datu pertsonalak eskuratu eta/edo haien tratamendua egin ahal izango du.
- Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena sinatzen duen toki-erakundea izango da datuen tratamenduaren arduraduna.

Araudian ezarri denarekin bat, halako datuak eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat joko, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendari Nagusiak, tratamenduaren eragile gisa, Udaletxea sinatzailearen aginduak bete beharko ditu, bai eta neurri hauek ere:

Datu pertsonalen tratamendua:

Hauek dagozkie tratamenduaren arduradunari:

- a) Baimena ematea preskripzio teknikoan agiriko «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean zehazten diren jarduerak egiteko.
- b) Aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta a posteriori ikuskatzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.
- c) Araudiarekin bat egin beharreko tratamendu-eragiketarako datu pertsonalen babesari buruzko ikuskapenak, auditoriak eta eragin-ebaluazioak egitea.
- d) Beharrezkoak diren aurretiazko kontsultak egitea.

«Datu pertsonalen tratamendua» eranskina ad hoc prestatutako jarraibideen idazkia da. Idazki horretan, alderdi hauek zehazten dira: babestu behar diren datu pertsonalak, egin behar den datuen tratamendua eta haien xedea, eta tratamendu-eragileak inplementatu behar dituen neurriak. Pertsona horrek datuak «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean jasota ez dauden beste helburu batzuetarako erabiliko balitu, komunikatu egingo balitu edo kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenean edo indarreko araudian ezarrita dauden estipulazioak bete gabe erabiliko balitu, tratamenduaren arduraduntzat joko litzateke, eta maila pertsonalean egindako arau-hausteen erantzule izango litzateke.

Tratamendu-eragileentzako estipulazioak

DBEOren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, tratamendu-eragilearen betebeharra izango da betebeharrak hauek betetzea eta bermatzea, «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean ezarri denarekin osatzen direnak:

- a) Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren exekuziorako aplikatze-koak diren gainerako agiriekin bat edo, hala denean, tratamenduaren arduradunetik kasuan-kasuan idatziz jasotako jarraibideekin bat tratatzea datu pertsonalak. Tratamendu-eragileak 10 egun balduneko epearen barruan jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari uste badu jarraibide horietako bat datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela.
- b) Datu pertsonalak ez erabiltzea kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren xedea ez den beste helburu baterako.
- c) Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideen eta edukiaren arabera tratatzea, eta erabiltzen dituen datu pertsonalen konfidentialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendaga-



riak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu eta betetzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Administrazio Elektronikoen esparrurako Segurtasun-Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

- d) kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena gauzatzeko erabiltzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

Tratamendu-eragilearen menpe tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebeharrak, eta, era berean, kontratistaren arduraz izango da organikoki edo/eta funtzionalki bere menpe dituen pertsonak ohartaraztea sekretu-betebeharrak eta hura gordetzen jarraitu behar dutela zerbitzua bukatutakoan ere edo zerbitzuarekiko lotura galdu badute ere.

- e) Datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda izatea, eta ziurtatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, espresuki eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta behar diren segurtasun-neurriak betetzeko (pertsona horiei behar jakinaraziko dizkie neurriok). Eta tratamenduaren arduradunaren esku jartzea egiaztatzeko dokumentazio hori.
- f) Tratamendua egiteko baimendutako pertsonak datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza dutela bermatzea.
- g) Hirugarren pertsonari ez komunikatzea (lagapenean uztea) eta zabaltzea datu pertsonalik, datuak kontserbatzeko bada ere; salbuespena da horretarako tratamenduaren arduradunaren baimen espresua dagoenean.
- h) Datuak Babesteko ordezkari bat izendatzea, hala badagokio, DBEOren arabera beharrezkoa denean.
- i) Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena amaitu ondoren, kasuan-kasuan eta «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean agintzen denaren arabera, konpromisoa hartzen du datu hauek itzultzeko edo suntsitzeko:
- Eskuratu dituen datu pertsonalak.
 - Tratamendu-eragileak tratamendua dela-eta sortutako datu pertsonalak.
 - Datu horiek biltzen dituzten euskarriak eta agiriak, inolako kopiarik gorde gabe.

Salbu eta legez edo Batasuneko zuzenbidearen arauz haien kontserbazioa baimentzen edo eskatzen bada, kasu horretan ez baitira suntsituko.

Tratamendu-eragileak, hala ere, datuak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren arduradunarekin duen harremanaren ondorioz erantzukizunak sor daituzkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta ahalik eta denbora gutxien kontserbatuko dira, eta epe hori amaitu bezain laster suntsituko dira modu seguruan eta behin betiko.

- j) «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean zehazten diren tratamendu-jarduerak egitea.
- k) DBEOren 33. artikulua ezartzen duenarekin bat, berehala komunikatzea tratamenduaren arduradunari, gehienez ere 72 orduko epearen barruan, bere ardurapean dauden datu pertsonalen segurtasuna hautsi denean, hala gertatu dela jakitun bada, Era berean, jakinaraziko dio informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo huts-egite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa den edozein informazio, bai eta negozio juridikoa exekutatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman behar diren ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa ere. Informazio xehea ko-



munikatuko du lehenbailehen horri buruz, zehatz adierazita zer pertsonak jasan duten konfidentzialtasun-galerarik.

- l) Pertsona fisiko batek tratamendu-eragilearen aurrean datuen babesaren arloko eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea, tratamendua mugatzea, eta banakako erabaki automatizatuak edo araudi aplikagarriak aitortutako beste batzuk ez hartzea), tratamendu-eragileak jakinarazi behar dio hori ahalik eta lasterren eragilea. Komunikazioa berehala egin behar da, eta inola ere ez eskubidearen egikaritzea jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentazioarekin eta bestelako informazioekin batera, eskubidea baliatzen duenaren identifikazio fede-emailea barne. Tratamenduaren arduradunari lagunduko dio, ahal den guztietan, hark eskubide-egikaritzak bete eta erantzun ditzan.

- m) Laguntza ematea tratamenduaren arduradunari haren betebeharrak betetzen: segurtasun-neurrien arloko betebeharrak zein segurtasun-neurrien arrakalak (lortuak zein saiatu direnak) agintaritzea eskudunei eta interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko betebeharrak; horrez gainera, eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.

Tratamenduaren arduradunari laguntzea kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) egin beharreko aurretiazko kontsultetan, hala behar denean.

Halaber, tratamenduaren arduradunaren esku jarriko du, hark eskatuta, betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta tratamenduaren arduradunak, hala badagokio, auditoriak eta ikuskapenak egiten lagunduko du.

- n) Idatziz edukitzea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikularekin bat, tratamenduaren arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinean jasoko baitira, gutxienez, artikulua horrek aipatzen dituen inguruabarrak. Horrela, bada, erregistro horrek informazio hau jasoko du:

– Tratamenduaren arduradunaren izena eta harremanetarako datuak.

– Eginiko tratamenduen kategoriak.

– Segurtasun arloko neurri teknikoaren eta antolaketa-arlokoaren azalpen bat, hala-ko neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:

- Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
- Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.
- Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoaren eta antolaketa arlokoaren eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

- ñ) Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen direlako ebidentziak izatea. Adibidea: auditorien emaitzen betetze-mailari buruzko aurretiazko ziurtagiriak, zeinak tratamendu arduradunaren esku jarri beharko baititu berak eskatuta. Era berean, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena indarrean dagoen bitartean, unean-unean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak tratamenduaren arduradunaren esku jarriko ditu.

- o) Informazio-eskubidea: datuak biltzen direnean tratamendu-eragilea denak informazioa eman beharko du egingo diren datu-tratamenduei buruz. Informazioa emateko idazketa eta formatua tratamenduaren arduradunarekin adostu behar dira, datuak biltzen hasi aurretik.

Klausula honek eta bertan ezarritako betebeharrak eta «datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskinak» osatzen dute datuen tratamendua arautzen duen egintza juridikoa, tratamenduaren arduraduna eta tratamendu-eragilea lotzen dituena; DBEOren



28.3 artikuluan arautzen da egintza hori. Hemen adierazitako betebeharrak eta prestazioak ez dira ordainduko kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena honetan aurreikusitakoaz gain edo bestelako moduan, eta kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena honen xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, hitzarmena luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena amaitutakoan, sekretu-betebeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, prestazioaren exekuzioan zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena honen xedea betetzeko ez da beharrezkoa kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena egiten zaion tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunaren ardurapeko beste ezein datu pertsonal eskuratzea, eta, beraz, ez dago baimenduta «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzea edo tratatzea. Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena exekutatu bitartean gorabeheraren bat gertatuz gero eta, horren ondorioz, tratamendu arduradunaren ardurapeko datu pertsonaletara ustekabeen edo gorabeheraren batengatik sartu behar bada («datu pertsonalen tratamendua» eranskinean ez daude jasota), tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkarari, ahalik eta arretarik handienarekin eta 72 orduko epean beranduenez.

Tratamenduaren azpimandatuak

Kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenak aukera ematen badu jarduera kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena egiten zaion pertsona fisikoa edo juridikoa ez den beste batek exekutatzeko eta, gainera, horrek aukera ematen badu datu pertsonalak eskuratzeko, beharrezkoa izango da tratamenduaren arduradunaren aurretzeko baimena izatea.

Baimenak ekarriko du baldintza hauek bete behar izatea:

- Esku hartzen duten hirugarrenek datu pertsonalen tratamendua indarreko legeria-
ra, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmena honetan jasotakora eta trata-
menduaren arduradunaren jarraibideetara egokitzea.
- Tratamendu-eragileak eta esku hartzen duten hirugarrenek datu-tratamenduaren
eragile izateko egintza juridiko bat formalizatzea kudeaketa-gomendioa formaliza-
tzeko hitzarmena honetan ezarritako baldintzak bezain murrizgarriak diren baldin-
tzetan. Egintza hori tratamenduaren arduradunaren esku jarriko da, errekerimen-
dua egiten zaionean, haren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunari jakinaraziko dio, 10 eguneko epearen barruan, esku hartzen duten beste pertsona batzuk kontratatzen badira edo daudenak aldatzen badira. Tratamenduaren arduradunak erantzuten ez badio komunikazio horri, horrek esan nahi du eskaeraren kontra dagoela.